

---

## KONTRATATZEKO BARNE JARRAIBIDEAK

---

**EAJ-PNVk**, Alderdi Politikoen Erregistroan inskribatutako alderdi politikoa den aldetik, nortasun juridiko propioa du, baita ahalmen osoa ere berezko dituen eta bere Estatutuetan jasotzen diren helburuak betetzeko.

Nahiz eta alderdi politikoa elkarte-oinarriko erakunde pribatu bat izan (Alderdi Politikoei buruzko ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoaren zioen azalpena), eta haren kontratuak izaera pribatukoak izan, Hamahirugarren Xedapen Gehigarriak, alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren "Alderdi politikoen kontratazioaren araubidea" izenekoak, honako hau ezartzen du: *"Alderdi politikoen kontratazio-prozedurak publizitatearen, lehiaren, gardentasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetan oinarrituko dira, borondatearen autonomia errespetatzearen eta, bidezkoa denean, konfidentziasunaren kalterik gabe".* Ildo beretik, ondorengo jasotzen du *"... kontratazioaren arloko barne-jarraibide batzuk onartu beharko ditu, aurreko paragrafoan aurreikusitakora egokituko direnak, eta aholkularitza juridikoa eman behar dion organoak onartu baino lehen jakinarazi beharko dizkio. Jarraibide horiek alderdi politikoen webgunean argitaratu beharko dira".*

Horixe bera ezartzen da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3.4 artikuluan.

### **1.araua.- XEDEA**

Jarraibide hauek arautzen dituzte EAJ-PNVren kontratazio-prozedurak, lan eta zerbitzuen kontratazioa publizitatearen, lehiaren, gardentasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioekin bat datorrela bermatzeko, betiere borondatearen autonomia eta, hala dagokionean, konfidentziasuna errespetatuz.

### **2.araua.- KONTRATAZIORAKO PRINTZIPIOAK**

EAJ-PNVk esleituko dituen kontratuak aurreko arauan zedarritutako printzipioen barruan ulertuko dira eta, ondore horietarako, printzipio horiek betetzat joko dira ondoren ezartzen dena errespetatuz eta betez.

#### 2.1.- Publizitatea.

EAJ-PNVk behar besteko publizitatea egingo du interesdun orok bere lizitazioetan parte har dezan, eta operadore juridikoen parte-hartzea bultzatuko du. Horretarako, dagozkion iragarkiak argitaratuko ditu kontratatzailearen profileen, jarraibide hauetan ezarritako baldintzetan.

#### 2.2.- Konkurrentzia.

Operadore ekonomiko gaituek deitzen diren lizitazioetarako sarbide askea bermatzeko jarduketa guztiak egingo dituzte, jarraibide hauen arabera.

#### 2.3.- Gardentasuna.

Gardentasun printzipioa bete egin dela ulertuko da publizitate-jarduerak egiten direnean hirugarrenei ondorengo berri emateko:

- Esleitu nahi den kontratuari aplikatzekoak diren arauak.
- Lizitazioan parte hartzeko epeak, nahikoak izango direlarik.
- Eskaintzak aukeratzeko eta baloratzeko eta kontratua esleitzeko irizpideak.

#### 2.4.- Konfidentzialtasuna.

EAJ-PNVk bere aldetik hartu du enpresaburuek konfidentzialtat jo duten informazioa ez zabaltzeko konpromisoa.

Era berean, kontratistak bere aldetik errespetatu beharko du prozesuan parte hartzeagatik edo kontratua gauzatzeagatik eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna

#### 2.5.- Berdintasuna eta diskriminaziorik eza.

EAJ-PNVk lizitatzzaileei tratu berbera emango die, diskriminaziotan erori gabe, eta ez du jarduerarik egingo lizitatzzaile batzuk besteen gainetik lehenesteko helburuarekin.

### **3.araua.- KONTRATAZIO-EREMUA**

Jarraibide hauek EAJ-PNVk egiten dituen obra, zerbitzu eta horniduren kostu bidezko kontratuei aplikatuko zaizkie, bere ondasunen eta ondarearen beharrian objektiboengatik, izaera ezberdineko jardueren garapenagatik eta, era berean, bere estatutueta jasotako helburuak betetzeagatik parte hartzen duen edozein jardueraren eremuan.

Jarraibide hauen aplikazio eremutik at geratuko dira:

- Ondasun higiezin, balore negoziagarrien eta jabetza gorpuzgabeen gaineko salerosketa-, dohaintza-, truke- eta errentamendu-kontratuak eta antzeko gainerako negozio juridikoak, ordenagailu-programen gainekoak direnak eta hornidura- edo zerbitzu-kontratu gisa kalifikatu behar direnak izan ezik.
- Arbitrajea eta kontziliazioa.
- Finantza-zerbitzuei buruzko kontratuak.
- Lan-legeriak araututako kontratuak.
- EAJ-PNVk konfidentzialtzat jotzen dituen kontratuak, bere antolaketa-egituraren barruan eta dagokion kontratuari berariaz eta esplizituki erreferentzia eginez kontratazio zehatz bakoitzak esleituta dituenak. Egoera hori txosten bidez justifikatu beharko da, eta txosten hori espedientearekin batuko da ezinbestean. Txosten horretan, "konfidentzialtasun" adierazpena eragin duen arrazoa agerian jarri eta egiaztatuko da, eta nahitaez lotuta egongo da jarduera politikoaren garapen normalizatuan edo edozein izaerako eskubide eta betebeharren subjektu den alderdi gisa segurtasunari, pribatutasunari, konfiantzari eta interferentziarik edo kalterik ez eragiteari buruzko alderdiekin edo gaiekin, ez bakarrik alderdi politikoaren hedapenean edo idearioetan, baita erabateko pribatutasun-oharrak dituzten eta funtzionamenduko estrategikotzat edo taktikotzat jotzen diren alderdiekin ere.
- Lankidetzak-hitzarmenak.
- Edozein zerbitzu, aholkularitza, publizitate, zabalkunde, sormen, adierazpen edo obra prestazio kontratatzea, zerrenda mugatzailea izan gabe, Alderdiaren hautagaitzak aurkezten diren hauteskunde-kanpainei lotuta dauden hornitzaileei dagokienez, edozein eskumen geografiko, politiko edo funtzionaletan, Estatu, Autonomia Erkidego edo Toki mailan.
- Alderdiak berak alderdikideentzat eta alderdizaleentzat antolatzen dituen ekitaldi, elkarretaratze, manifestazio edo

jaiak, jarduera politikoak eta entretenimenduko edo ospakizuneko jai edo ludikoak bateratzen direnean, aldizka edo noizean behin gertatzen direnean, nahiz eta bertaratze publikokoak izan, edozein hauteskunde-kanpaina alde batera utzita eta edozein dela ere, antolaketari eta horiek egiteko giza baliabideak eta baliabide materialak hornitzeari buruzko alderdi guztietan.

- Konfidentzialtasun- eta segurtasun-arrazoiengatik, EAJ-PNVren eraikin, instalazio eta jabetzak zaintzarekin eta segurtasunarekin zerikusia duten kontratazioak, bai eta informatikako sistemak eta ekipoak kontratatze kontratazioak ere.
- Kanpoan geratuko dira, halaber, profesional tituludunen edo titulurik gabekoen aholkularitza edo esku-hartze mota oro xede duten kontratazioak, zerbitzuak edo egin beharreko obrak kutsu politiko hutseko gai edo edukiei buruzkoak direnean, barnekoak zein kanpokoak, baldin eta konfiantza- eta konfidentzialtasun-elementua beharrezkoa bada alderdiaren jarduera politikoak bere ideietatik kanpoko interferentziarik edo baldintzatzailerik gabe normaltasunez garatzeko, eta horien gainean ondare-kaltea bakarrik ez bada.
- Kanpoan geratzen dira, halaber, Alderdiaren egoitzetara sartzeko edo alderdikideengana euren zuzenean jotzeko aukera eman izan dezaketen kontratuak, baldin eta egoitza edo instalazio horien barruan dokumentazio konfidentziala artxibatuta edo biltegitatuta badago.
- Berariazko edo isilbidezko luzapen-klausulak ezarrita dituzten kontratuak, harik eta klausula horiek erabat amaitu arte edo jatorrizko konfigurazioan aurreikusitako hizpaketak mantentzean atzera egin, hutsaldu edo suntsiarazi arte. Klausula horiek bere garaian itundutako baldintzen arabera arautuko dira.
- Ondore horietarako, konfidentzialtza hartuko dira profesionalei, adituei edo horien laguntzaileei enkargatzen zaizkien aholkularitza, zerbitzu, lan edo obra guztiak, Justizia Epaitegi eta Auzitegietan, edozein izaerako gatazka edo prozeduretan eta edozein Jurisdikziotan bidera daitezkeen egitate eta egoeren aurreko, aldi bereko edo ondorengo faktoreen esparruan, horien prestatze-fasea edo kasuan kasuko espediente edo auzia hasi aurreko fasea barne.

- Azkenik, aparteko testuinguru batean salbuespenezko inguruabarrak daudelako, premiaz eta ezinbestean adostu behar direla agerian uzten dutenak.

#### **4.araua.- IZAERA ETA KONTRATUEI APLIKATUKO ZAIEN ERREGIMEN JURIDIKOA**

EAJ-PNVk aldarrikatuko dituen kontratuak, edozein kasutan, kontratu pribatutzat joko dira.

#### **5.araua.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Lurralde-egiturari dagokionez, Euzkadi Buru Batzarrari dagozkio, erabakitze organo Gorena den aldetik, legezko ordezkari-ahalmenak eta EAJ-PNVren barne-konfigurazioaren egituraren ahalmen funtzionalak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten lurralde historikoen mugaketa hartzen duten lurralde-organoei, Nafarroako Foru Erkidegoari eta Alderdiaren barneko antolamendu-egitura hori proiektatzen den konpendio organikoan parte hartzen duten Euzkadiz kanpoko erakundeen gainerako geografia- edo kokapen-barrutiei ere. Halaber, Alderdiaren legezko ordezkari-ahalmenak izango dute edozein eremu politiko, ondarezko edo ekonomikotan, indarrean dauden Estatutuen bidez ematen zaizkien preskripzio eta ahalmenen arabera, eta horiek guztiak, ondorio horietarako, Kontratazio Organoaren izaera izango dute, arau hauen xedearen arabera, eta horrela identifikatuko dira.

Hala ere, Kontratazio Organoaren izaera bera Uri Buru Batzarrei edo herri mailako buru batzarraren presidenteari edo burukideei ere hedatzen zaiela ulertuko da, baldin eta tokiko funtzionamenduaren araubidearen barruan, oro har edo berariaz, ordezkari-ahalmen nahikoak badituzte Alderdiaren izenean kudeatzeko, ondare-administrazioarako eta kontratazioarako, bai eta dokumentu publikoak edo notario-agiriak izan badituzte ere, eta horietan ordezkari-gaikuntzak eskuordetuta badaude, horien xedea eta horien hedadura eta/edo mugak erabat identifikatuta. Era berean, Kontratazio Organotzat hartuko dira, nahiz eta notario-ahalordetzerik edo beste agiri edo erregistro publiko batzuetan jasota ez izan, baldin eta agiri pribatu bidez ahalmen horiek eskuordetu dizkieten Alderdiko Organoen erabakiak gauzatzean eta betetzean badaude, egintza, itun edo egoera espezifiko eta banakatuetakoko.

Azkenik, Kontratazio Organoen izaera bera izango dute Uri Buru Batzarrek, haietako presidente eta burukideek, beren ordezkari- eskuduntzak notario-eskrituran jaso beharrik gabe, edo, beharrezkoa ez izan arren, dokumentu pribatuan jasota egon gabe, baldin eta beren karguari dagozkion ahalmenak betetzen ari badira eta Alderdiaren Estatutuetan horrela jasota badaude, baldin eta, xedea eta zenbatekoa direla-eta, eskuordetzea beharrezkoa ez bada.

Hori guztia jasota utzi beharko da espediente bakoitzean.

### **6.araua.- KONTRATISTAREN AHALMENA ETA KAUDIMENA**

EAJ-PNVrekin kontratua hitzartu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten eta kontratatzeke debekurik ez duten pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek zein atzerritarrek.

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatu beharko dute, kontratu bakoitzaren oinarri-pleguetan zehaztutakoaren arabera.

### **7.araua.- KONTRATUEN IRAUPENA**

Kontratuen iraupena ezartzeko orduan, kontuan hartu beharko dira prestazioen izaera, haien finantzaketaren ezaugarriak eta prestazioen gauzapena aldi-aldi lehiera eraman beharra.

Kontratuak luzapen bat edo batzuk aurreikusi ahal izango ditu, bere iraupen-aldian ezaugarriak aldatu gabe daudenean.

### **8.araua.- KONTRATU MOTAK, KONTRATU MOTA BAKOITZA PRESTATZEA, ESLEITZEA ETA FORMALIZATZEA**

Hiru kontratu mota ezartzen dira:

- A) Ohiko edo arrunt diren gastuen kontratuak, zerbitzu eta hornidura arrunt eta errepikariei dagozkienak, 5.000 eurotik beherakoak direnean.
- B) 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra-kontratuak eta 15.000 eurotik beherako eta 5.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten zerbitzu- edo hornidura-kontratuak.
- C) 40.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten obra-kontratuak eta 15.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten zerbitzu- eta hornidura-kontratuak.

Ondore horietarako, obraren kasuan, obraren guztizko kostua hartuko da kontuan, eta urtebetetik gorako iraupena duten zerbitzuen eta horniduren kasuan, emango den zerbitzuaren urteko kostua.

Adierazitako zenbatekoetan ez da kontuan hartu behar BEZa, hau da, adierazitako zenbatekoak zergarik gabekoak dira.

### **8.1.- Kontratuak prestatzea.**

8.1.1.- A motako kontratuetan ez da beharrezkoa izango prestaketa-prozedura egitea, eta nahikoa izango da dagokion ekonomia-arduradunaren oniritzia horniduraren edo zerbitzuaren fakturaren gainean, baldin eta onartutako urteko aurrekontuan gastu hori ordaintzeko adina diru-izendapen badago.

8.1.2.- B motako kontratuetan nahikoa izango da gastua onartzea, gastuaren beharra azaletik justifikatzea eta dagokion faktura dokumentu horretan sartzea.

8.1.3.- C motako kontratuetan, kontratuaren oinarriak eta pleguak webgunean eta "*Kontratazailearen Profila*" deiturikoan argitaratzeko betebeharra egongo da. Hala ere, beren ospe eta kaudimen tekniko eta ekonomikoagatik lizitazioan parte hartzeko gonbidapena jasotzen duten beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek ere parte hartu ahal izango dute.

Parte hartzeko hasierako proposamen guztiak jaso ondoren, Kontratazio Mahaiak prozeduran parte hartzeko behin betiko hautagai izan daitezkeen proposamen guztien lehen hautaketa egingo du, eta aurrehautatuta geratuko da parte hartu nahi dutenen % 50 baino gutxiago izango ez den kopuru bat, salbu eta zalantzarik gabe koonestatu bada horietako bati edo batzuei eskatzen zaien gaitasun edo kaudimen tekniko eta/edo ekonomiko falta nabarmena, eta egiaztatzen bada ezinezkoa dela kontratua modu normalizatuan gauzatzea; kasu horretan, ehuneko hori ez da aplikatuko.

Sailkapen honetako kontratueta, gainerakoetan bezala, EAJ-PNVk formalki konfidentziazat jo dituenean, Alderdiaren egituraren barruan emateko deia egiten zaionaren ahalmenen eremuan, ez dira aplikatuko artikulua honetan ezarritako arauak.

8.1.3.1. Gastua edo inbertsioa egitea eskatzen duen saileko arduradunaren txostena, honako datu hauek justifikatuz: kontratuaren bidez estali nahi diren premien izaera eta hedadura, xedea, iraupen-epea, gutxi gorabeherako aurrekontua eta proposatutako prozedura-mota (7.2.4 paragrafoan ezarritakoa).

8.1.3.2. Proposatutako gastuarekin estali nahi diren beharrak justifikatzeko memoria.

8.1.3.3. Kontratuan bertan sartuko den oinarri- edo baldintza-agiria. Agiri horrek, gutxienez, honako zehaztapen hauek jasoko ditu:

- Kontratuaren xedea eta oinarrizko ezaugarriak, kasuan kasuko materialen, produktuen edo zerbitzuen deskribapen argi eta zehatza barne.
- Kontratua gauzatzeko epea, eta, hala badagokio, luzapenak egiteko aukera.
- Eskaintzak esleitzeko prozedura, baloratzeko irizpideak eta horien haztapena.
- Kaudimen-irizpideak, hala badagokio.
- Lizitazio-aurrekontua.
- Lizitatuzaileen eta esleipendunaren berariazko betekizunak eta bermeak, hala badagokio.

8.1.3.4. Kontratazio-organoak espedientea onartzeko eta esleipen-prozesua hasteko erabakia, gastua onartzea ekarriko duena.

## **8.2.- Esleipen-prozedurak.**

8.2.1.- A motako kontratuak zuzenean esleituko dira, inolako argitalpenik egin beharrik gabe.

8.2.3.- B motako kontratuak zuzenean eta inolako publizitaterik gabe esleituko dira, eta nahikoa izango da kontratazio-organoak



enpresa bakar bati zuzenean eskaintza bat eskatzea, eta, hala badagokio, enpresa horri esleituko zaio kontratua.

Enpresak eskaintako aurrekontua onartzea da esleipena, eta posta elektronikoz, faxez edo kontratua sinatuz egin ahal izango da, azken hori beharrezkotzat jotzen denean.

Kontratazio-organoak arduradunak egin beharko ditu eskaintza-eskaerak, onarpenak eta baita materiala edo zerbitzua jasotzeak ere.

8.2.4.- C motako kontratuak 7.1.3.b) idatz-zatian aipatutako pleguetan ezarritakoaren arabera esleituko dira, honako arau hauen arabera:

8.2.4.1. Lizitazioaren iragarkia EAJ-PNVren Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da. Iragarki hori sarrera askekoa, zuzena, osoa eta doakoa izango da.

8.2.4.2. Iragarki horren edukia izango da:

- Kontratuaren oinarrizko ezaugarriak.
- Esleitzeko prozedura.
- Organo kontratatzailea.
- Kontratua gauzatzeko aurreikusten den aurrekontua.
- Eskaintzak aurkezteko hautatuko diren enpresen kopurua, arau orokor gisa partaidetzan interesa dutenen %50 inguruk zehaztu ahal izango duena, eta, hala badagokio, hautaketa hori egiteko irizpideak.
- Aurrez hautatutako enpresak zein diren jakinarazteko epea.
- Eskaintzak baloratzeko eta haztatzeko irizpideak, eta, hala badagokio, negoziatzeko irizpideak.
- Eskaintzak aurkezteko epea eta tokia.
- Eskaintzak ireki eta esleipena argitaratu den eguna.

- Lizitazioaren Oinarri edo Baldintzen agiria.

8.2.4.3. Eskaintzak aurkezteko epea zentzuzko jotzen dena izango da, eta ez da 10 egun baliodunetik beherakoa izango, enpresa aurrehautatua izan dela jakinarazten denetik kontaktzen hasita.

8.2.4.4. Epe horren barruan eskaintzarik jasotzen ez bada, kontratua gauzatzeko eskaintzak eskatuko zaizkie gutxienez hiru enpresari.

8.2.4.5. Arrazoi teknikoak edo konfidentziasunekoak direla-eta, behar bezala justifikatuta, kontratua enpresa jakin bati bakarrik agindu dakiokenean, enpresa horri bakarrik eskatu ahal izango zaio eskaintza.

8.2.4.6. Pleguan kaudimen-irizpide objektiboak ezarri ahal izango dira eskaintzak aurkeztera gonbidatutako hautagaiak hautatzeko, interesa adierazi dutenen artetik. Era berean, gehienez ere hiru hautagai gonbidatu ahal izango dira.

8.2.4.7. Baldintza-agiriak lizitatzailleekin negoziatu beharreko alderdiak jaso ahal izango ditu – beste batzuk izan ezik –, eta negoziazioan zehar lizitatzaille guztien tratu-berdintasunaren printzipioa errespetatzen dela zainduko du.

8.2.4.8. Pleguetan eskaintzak baloratzeko ezartzen diren irizpideek lotura zuzena izan beharko dute kontratuaren xedearekin (adibidez, prezioa, prestazioa betetzeko epea, kalitate teknikoa, etab.).

8.2.4.9. Eskaintzak baloratzeko orduan prezioaz bestelako irizpideak kontuan hartu behar direnean, organo eskudunak, esleipen-proposamena egin aurretik, behar diren txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

8.2.4.10. Lizitatzailleek hobekuntzak eskaintzeko aukera ere jaso ahal izango da baldintza-agirian. Hobekuntzat hartuko da lizitatzailleek kontratuaren xedearekin lotuta egindako proposamen edo prestazio gehigarri oro, Oinarrien Pleguko betekizunetan jasota ez dagoena eta horri balioa gehitzen diotena. Hobekuntza horien zenbatekoa eskaintako prezio orokorraren barruan egongo da nahitaez.

8.2.4.11. Eskaintzarik onuragarriena zehazteko irizpide bakarra erabiltzen denean, hori izango da, nahitaez, preziorik baxuena.

8.2.4.12. Kontratu-prozedura kudeatzeaz arduratzen direnek konparazio-taula bat egingo dute aurkeztutako eskaintzekin, eta kontratua eskaintzarik onenari esleitzea proposatuko dute.

8.2.4.13. Esleipena aurrez hautatutako lizitatzailer guztiei jakinarazi beharko zaie, eta EAJ-PNVren web-orrian argitaratuko da. Aurrez hautatu gabeko enpresei egoera horren berri emango zaie lizitaziotik kanpo uzten dituztenean.

### **8.3. Kontratuak formalizatzea.**

8.3.1. A motako kontratuak kontratistak egindako faktura baino ez dute izango, eta bertan arduradunaren oniritzia jasoko da.

8.3.2. B motako kontratuak honako hau baino ez dute behar: organo eskudunak kontratistak egindako eskaintza, eskaintako aurrekontuari erreferentzia egingo dion agindua edo eskaera onartzen duela egiaztatzea.

8.3.3. C motako kontratuak formalizatzeko, gutxienez, honako alderdi hauek jaso beharko dira:

8.3.3.1. Parteen identifikazio nahikoa.

8.3.3.2. Sinatzaileek kontratua sinatzeko duten gaitasuna arrazoitzeko egiaztatpena.

8.3.3.3. Kontratuaren xedea zehaztea.

8.3.3.4. Prezio zehatza edo hura zehazteko modua.

8.3.3.5. Kontratuaren iraupena edo gauzatzeko eta amaitzeko aurreikusi diren datak, bai eta luzapena edo luzapenak ere, aurreikusita badaude.

8.3.3.6. Ordainketa egiteko baldintzak.

8.3.3.7. Kontratua suntsitzea ekarriko luketen egoerak.

8.3.3.8. Kasuan kasuko bermeak eta zigorrak, baldintza-  
agirian ezarritakoaren arabera.

### **9. araua.- AZKEN XEDAPENAK**

Arau hauek Euzkadi Buru Batzarrak onartu ditu eta Alderdi  
Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoak eskatutako  
aurretiazko txosten juridikoa dute.

Sabin Etxea, 2024ko otsaila.